

INKLUSI 

BELAUNALDI INKLUSIBOAK

Komunitatetik gizarteratzen laguntzeko proposamena



ANTZUOLA
UDALA

Gizartearen
Berri Abantardua
Egiteko Funtzio
Berria



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
El futuro de Bizkaia

MATIA
INSTITUTO



ADINKIDE
SEANDES AMIGOS



AURKIBIDEA

- 1. Inklusib** proiektua
2. Zer aurkituko dugu gida honetan
3. Jardun aurretik kontuan hartu beharreko alderdiak
4. Udalerri inklusiboa eraikitzeko bidean sei urrats
 - Talde eragile bat sortzea
 - Ezagutu dezagun gure ingurua
 - Ezagutu dezagun zer egiten den beste leku batzuetan
 - Zeintzuk dira gure indarguneak? Eta gure erronkak?
 - Sareak ehuntzen
 - Zer egin dezakegu udalerri gisa? Jar ditzagun adibide batzuk
5. Profesionalen laguntza.
6. COVID-19 garaietako inklusioari buruzko gogoetak

1. INKLUSIB PROIEKTUA

Etorkizuna Eraikiz (Gipuzkoako Foru Aldundia) ekimenak finantzatutako proiektua da **inklusib**, Matia Institutuarekin eta Adinkiderekin lankidetzan eta Antzuolako Udalaren parte-hartzearekin.

Parte hartzea ardatz duen proposamena da dokumentu hau, eta Antzuolako auzotar talde baten esperientziatik abiatzen da; izan ere, 2019an eta 2020an proiektu honetan parte hartuz esku hartzeko prozesu hau sortu dute.

Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak **komunitate-bizitzan parte** izan daitezen sustatzea du helburu, belaunaldi desberdinetako pertsonen parte-hartze aktibotik abiatuta.

Proiektu honi esker, eta elkarlaneko eraikuntza-prozesu baten bidez, **laguntza-gida** hau sortu da, pertsona guztien parte-hartzea bultzatuko duen aktibazio komunitarioko prozesu bat abian jartzeko, bereziki, beren egoera edo baldintzak udalerriko bizitzan inplikatzeara eragozten dieten pertsonen kasuan.

Gida hau ez zatekeen posible izango berau prestatzen parte hartu duten pertsonen konpromiso eta borondatezko lanik gabe.



2. ZER AURKITUKO DUGU GIDA HONETAN?

Gida honek herritar guztien **inklusioaren** alde lan egin nahi duten udalerrietzat laguntza-baliabide bat izan nahi du. Bereziki, gizarte-eremuetatik kanpo dauden pertsonen **parte-hartzea** errazteko gakoak eskaini nahi dira, horretarako komunitatea inplikatur.

Baliabide hau esperientzia zehatz batetik sortu da, Antzuolaren ezaugarri espezifikoetan oinarrituta, eta, horregatik, herri bakoitzak bere errealitatera egokitu beharko du proposamena.

«INKLUSIOA ERRAZTEKO BALIABIDE BAT, HERRITARREN PARTE-HARTZETIK ABIATUTA, BELAUNALDIEN ARTEKO IKUSPEGIAREKIN»

Gida honetan partaidetza-mugimendu bat sortzeko giltzarriak eta jarraitu beharreko urratsak aurkituko ditugu, pertsonen eta auzo edo udalerriaren beraren egoerak kontuan hartuta, bitziza sozialean eta komunitarioan integratzea erraztuko duena.

Baina... Zer da parte hartzea?

Parte hartzeak zerbaiten parte izatea esan nahi du, gizarte-bizitzan presente egotea, komunitatean rol aktiboa izatea...

Parte hartzeko modu asko daude: kafea hartzetik, bizilagunekin hitz egitea, auzoko ekitaldietan noizbehinka parte hartzea..., baita modu antolatuan eta ohiko moduan elkarte edo erakunde batean guztion onerako egitea ere.

Hala ere, batzuetan, pertsonaren inguruan, gizarte-bizitzan parte hartzetik kanpo uzten duten egoerak, oztopoak edo mugak pilatu daitezke. Hori da, hain zuzen ere, gizarte-bazterketa deitzen dioguna.

Zer egin dezakegu herritar gisa, oztopo horiek murrizteko edo zeharkaezina izan ez daitezen?

Zer egin dezakegu pertsonak komunitatean parte hartzea errazteko?

3. JARDUN AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Pertsona bat gizarte-ingurunetik kanpo dagoenean, oso zaila izan daiteke berriz ere komunitate-bizitzan nola parte hartu jakitea edo hori egiteko in-darra aurkitzea.

Neurri batean, pertsonaren jarreraren eta ezaugarrien arabera da hori. Baina **komunitateak ere ezinbesteko zeregina izan dezake**, ingurunea prestatzen lagun baitezake, horretara hurbiltzeko aukerak eta tresnak es-kainita.

Aldeko ingurune batek pertsona guztien inklusioa erraztu dezake, eta in-gurune horrek pertsona batek komunitatearekin duen loturaren edo eta komunitatean parte ez hartzearen arteko aldea ezarri dezake.

Parte-hartzea bultzatzen duten ingurune horiek eraikitzeko:

Herritarrek ingurune inklusiboak sortzearen abantailei buruz sentsibilizatu behar dira...

...prebentzioa funtsezkoa da bazterke-ta-egoerak saihesteko...

...Udalerrian zer daukagun eta zer aukera eskaintzen dizkigun ondo jakiteak gizarterat-zearen arloan ditugun erronkak identifikatzen lagunduko digu...

...Eta, azkenik, gogoeta egin beharko dugu komunitatetik laguntzeko moduari buruz.



4. UDALERRI INKLUSIBOA ERAIKITZEKO BIDEAN SEI URRATS

Jarraian, gizarteratzearekin hasteko, 6 faseko proposamen bat agertzen da. Horren bidez, gizarteratzea komunitatetik lantzeko orientazioa eman nahi zaie udalerriei, hortik aurrera bakoitzak bere metodologia egokituz eta bilatuz joan dadin, bere ingurunearen ezaugarrien arabera.

P1.

Talde eragile bat sortzea

P2.

Ezagutu dezagun gure ingurua

P3.

Ezagutu dezagun zer egiten den beste leku batzuetan

P4.

Zeintzuk dira gure indarguneak?
Eta gure erronkak?

P5.

Beste eragileekin sareak ehuntzen

P6.

Zer egin dezakegu udalerrri gisa?
Jar ditzagun adibide batzuk

1. TALDE ERAGILE BAT SORTZEA

Udalerri inklusibo bat komunitatetik eraiki behar da, eta, horretarako, beharrezkoa da inplikaturik egongo den eta prozesua gidatuko duen talde eragile bat izatea. Talde hori arduratuko da udalerrian abian jarri beharreko ekintzei buruz hausnartzeaz eta erabakitzeaz, egoera bakoitza aztertzeaz, beste batzuekin lankidetzak ezartzeaz...

Nola sortu talde hau?

Garrantzitsua da foro honetan parte hartzen duenak bere borondatez parte hartzea eta komunitatearekiko konpromiso "garrantzitsua" hartzea.

Talde horretako kide izan daitezkeenak hautemateko aukera bat, gizarte-bizitza aktiboa duten herriko edo auzoko elkarte batzuetako ordezkari batzuk biltzea izan daiteke. Bilera honen helburua ekarpenak egin ditzaketen eta parte hartzeko interesa izan dezaketen herriko pertsonak identifikatzea izango litzateke.

Talde eragileko kide izan daitezkeen pertsonak identifikatu ondoren, taldean parte hartzeko gonbidapen pertsonalizatua helarazteak eta proiektuari buruzko informazio-bilera batera deitzeak lagun dezake, gero, pertsona bakoitzak, bere borondatez, erabaki dezan bertan parte hartu nahi duen ala ez.

Zenbat lagunek osa dezakete taldea?

Egokiena jarrera malgua, begirada irekia eta behar kolektiboa ikusteko edo sentitzeko gaitasuna duten 8-12 laguneko taldea da.

Zein pertsonak osatzen dute?

Talde honetako pertsonen profila askotarikoa izan behar du, bai adinari, generoari, lanbide-profilari, interesei, bai herrian edo auzoan duten parte-hartze mailari dagokienez.

Talde hau osatzen duten pertsonak elkarteetako ordezkariak, herritarrak oro har, erakunde publikoak, herriko zerbitzuak eta, ahal bada, baztertuta gertatzeko arriskuan dauden pertsonak izan daitezke. Azken horien bizi-esperientzia bertatik bertara ezagutzeak errealitatearekin harreman handiagoa izaten lagunduko digu. Zaila izan daiteke komunitate-bizitzan parte hartzen ez duen pertsona bat erakartzea taldera, baina aukera bat bere ekarpena elkarriketa pertsonal baten bidez edo bere konfiantzako pertsona baten bidez egitea izan daiteke.

2. GURE INGURUA EZAGUTU DEZAGUN

Behin talde eragilea sortuta, zer daukagun jakin beharko dugu, gure auzoa, herria eta funtzionatzeko modua ezagutu.



Horretarako, honako gai hauek planteatu ditzaizkigu:

Zer egoera izan daitezke oztopo pertsonen herrian edo auzoan parte hartzeko?

Pentsa dezagun egoera zehatzetan: kultura-desberdintasunak, hizkuntzak, desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoerak, nahasmendu psikikoak, lan-egoerak, adikzioak eta abarrek inklusioa zaildu dezakete, baina inklusioaren aldeko faktoreak ere egon daitezke.

Antzuolako talde eragilean identifikatutako faktoreak:

Gizarte-bazterketa

Onartua izateko beldurra
 Ondoez pertsonal soziala
 Desgaitasuna
 Erlijioa
 Adikzioak
 Kirola
 Politika
 Pobrezia
 Kultura
 Bakardadea
 Teknologia berrien egungo erabilera
 Enpatiarik eza
 Indibidualismoaren hazkundera
 Oztopo arkitektonikoak
 Landa-eremu batean bizitzea
 Sexismoa
 Xenofobia
 Zaintzak eskuordetzeko ezintasuna
 Adina

Gizarte barneratzea

Parte hartzea
 Harrera
 Ingurunea ezagutzea
 Informazioa
 Sarea/Gizarte-ehuna
 Prestakuntza
 Hizkuntzaren ezagutza (euskara)
 Eskola (gurasoen harremana seme-alaben bidez)
 Kirola
 Komunitatean lan egitea
 Boluntarioak
 Ongizate pertsonala/soziala
 Baliabide ekonomikoak
 Elkarrekin kide izatea

Mapa komunitarioa, elkar ezagutzeko tresna

Mapa komunitario batek herrian dauden eragile komunitarioak, tokiko ekimenak, zerbitzuak, baliabideak, topalekuak eta batzuen eta besteen arteko harremanak identifikatzen lagun diezaguke.

Mapa komunitarioa espazio eta eragile horiek guztiak irudikatzeko eta haien artean harremanak ezartzeko tresna bat da.

Baina nola egiten da mapaketa bat?

Mapaketa mota hau egiteko modu ezberdinak daude, baina hemen lan hau erraztu dezakeen modu erraz bat azaltzen dugu. Lehenik eta behin, honako material hau beharko dugu:

- Herriaren tamaina handiko planoak
- Planoari eusteko euskarria
- Txintxetak edo koloretako pegatina txikiak
- Koloretako post-it-ak
- Errotuladoreak

Mapaketa Talde Eragilearen barneko lan gisa egin daiteke, edo komunitate osoari ireki, auzotarrak bertan parte hartzera gonbidatuz. Kasu horretan, garrantzitsua izango da proiektuaren parte-hartzaileei mapaketaren helburuaren eta jarraitu beharreko metodologiaren berri ematea.

Mapan honako hau identifikatzea proposatzen da:

- Gizarte-eragileak, udalerriko elkarteak
- Baliabideak eta zerbitzuak
- Lotutako ekimenak edo programak
- Topalekuak

Puntu horiek guztiak identifikatu ondoren, hurrengo urratsa hortik atera daitezkeen ondorio nagusiei buruz hausnartzea izango litzateke. Baliteke mapak udalerrian ez dugunari buruz arrastoak ematea, gizarte-harremanak errazten dituzten puntu edo programa estrategikoenei buruz. Azken batean, dagoen errealitatera egokitutako udalerraren argazki bat edo dugun pertzepzioa emango digu.


Galdera hauek hausnarketa horretan lagun dezakete: zer behar daude ase- turik? Zer falta da? Nola erlazionatzen dira eragileak? Elkar ezagutzen dute edo elkarrekin lan egiten dute?

Kontuan izan behar da mapaketa gauza bizia dela, ekimenak edo programak aldatuz joan daitezkeela, eta, gainera, Covid-19 garaian ikusi dugun bezala, litekeena dela leku batzuen erabilera-murrizketengatik edo espazio irekietan egoteko joeragatik batez ere elkarguneak aldatuz joatea; horregatik, interesgarria litzateke mapa hori sarbide




errazeko tokiren batean jartzea, behar izanez gero aldaketak egin ahal izateko.

Mapaketa gehiago sakondu nahi izanez gero, gida hau kontsulta daiteke: ["Nola egin mapaketa kolektibo bat"](#), Vivero de Iniciativas Ciudadanasek egina. Plataforma hau kulturala, irekia eta lankidetzakoa da, eta prozesu kritikoak sustatzera bideratuta dago, gure inguruneetan gertatzen den herriarren berrikuntzaren lurraldeari eta espazio publikoari egindako transferentzietan bereziki.

Alderdi horiek guztiak identifikatu ondoren, herriko mapa batean bistaratzeko dira, eta batzuen eta besteen artean sinergiak nola batu, aliantzak nola ezarri, elkarguneak nola fokalizatu eta abar identifikatu ditzakegu. Horrela, ekintza posibleak garatzeko agertokia argiago koka daiteke, eta hobeto egokitu daiteke udalerraren edo auzoaren egoerara.



Antzuolako eragileak/programak (adibide batzuk):

Landaxope jubilatuen etxea	Anelkar GKE
Eguneko zentroa	Eskola 
Gizarte Zerbitzuak	Osasun-zentroa 
 Tutoretzapeko apartamentuak	Caritas
Gaztetxoko	Antzuola Lagunkoia

Topagunak:

Patioa	Gaztetxoko
 Sagasti parkea	 Tiendas
 Tabernak eta kafetegiak	 Kultur Etxea

3. BESTE LEKU BATZUETAN ZER EGITEN DEN EZAGUTU DEZAGUN

Interesgarria izan daiteke taldekideen "ikuspuntua irekitzeko" ere, eta talde eragileak bere zereginetako bat bezala har dezake, gai honekin lotuta beste udalerrri edo herrialde batzuetan garatzen diren beste Jardunbide Egokien berrikuspena egitea. Ildo horretan, Antzuolako taldearekin partekatu ziren jardunbide egoki batzuen zerrenda aurkezten da.

Lan honek egiten duguna baloratzen lagun diezaguke, munduko beste leku batzuetan gure herriarenak bezalako ekintzak garatzen direla ikusiz, edo ekimen berriak abian jartzeko ideiak eman diezazkiguke.

Hauek dira aurkezten diren praktikak:

- Radars proiektua (Katalunia)
- Auzoko amak (Danimarka)
- Begirada aktiboa (Bilbo)
- Lkaleak (Donostia)
- Auzokide handiak - Adinkide (Madril - Euskal Herria)
- Beste zerumuga batzuk erakusten (Andalucía)
- Piztu zure auzoa (Gasteiz)
- Erlauntza (Donostia)
- Etxea eta kafea (Madril)
- Lorategi biziak (Kroazia)
- Jantoki soziala (Muskiz)
- Sabai bateko ordua da (Frantzia)
- Kuvu (Bilbo)
- Experimenta distrito (Madril)
- Elikagai-bankua (Gipuzkoa)
- Casserole Club (Erresuma Batua - Australia)
- Touchstone (Irlanda)
- Nagusilan (Gipuzkoa)
- Otorduetan elkar ezagutzen (Italia)



Gainera, hurrengo webgune hauetan interes handiko beste jardunbide on batzuk aurki daitezke:

- <https://www.berrituz.eus/eu/experiencias/>
- <https://www.euskadilagunkoia.net/eu/jardunbide-egokiak/jardunbide-arloka>
- <https://www.sis.net/documentos/ficha/532562eu.pdf>

4. NORANTZ JOAN NAHI DUGUN

Gure udalerrian zer daukagun ezagutu dugu, baita beste leku batzuetan zer egiten den ere, eta orain aurrera egin dezagun pixka bat gehiago. Imajina dezagun nolakoa izan beharko litzatekeen gure herria pertsonen inklusioa bultzatzeko, eta pentsa dezagun gure errealitatearen egoera zehatzean, eta zer egin nahi dugun gure herrian.

Gure buruari honako galdera hauek egin diezazkiokegu, pertsonen parte-hartzea bultzatuz, udalerrri inklusiboagoa eraikitzeke helburuan aurrera egiteko jarraitu behar dugun bideari buruz:

Zein dira gure indarguneak, pertsonen komunitate-bizitzan parte hartzea errazten duten eta gaur egun herrian ditugun indarguneak?

Ikus ditzagun Antzuolako adibide batzuk:

Udalak, herritarrek eraiki nahi duten udalerriri buruz sustatutako parte-hartze prozesu baten ondoren, udalerrri inklusibo baterantz joatea du [helburu 2030erako](#).

Radarren rola: herri txikia izateak eta guztion artean elkar ezagutzeak, iritelen ez diren, laguntza behar duten edo herriaren gizarte-bizitzatik kanpo dauden pertsonak, hau da, herrian aktiboki parte hartzen ez duten kasuak, errazago detektatzen laguntzen duela uste da.

Biztanleen arteko harremana oso hurbila da, eta horrek kaleko harremana edo telefono bidezko komunikazioa errazten du. Herritar gisa, egoera horiei adi egoteak eta auzotarren arteko hurbileko harremanari esker, laguntza-premia antzeman daiteke, bai eta laguntza modu naturalean eman ere, eta hori mantendu beharra ikusten da.

Harrera-protokoloa: Antzuolan udalerrira bizitzera datozen pertsonentzako harrera-protokolo bat dago, oso baliotsua dena eta herri honetara bizitzera iristen direnean pertsonak ondo hartuta senti daitezen laguntzen duena. Hala ere, berrikusketa baten beharra antzeman da, eta talde sustatzailean proposamenak egin dira estrategia honek pertsonengan eragin handiagoa izan dezan.

Boluntariorza-sarea: udalerrriak boluntariorza-sare sendoa du, eta bertan belaunaldien arteko hainbat programa ere gauzatzen dira.

Zer aukera identifika ditzakegu? Eta zein dira hori lortzeko landu beharko genituzkeen erronka nagusiak?

Antzuolan, herritar guztiak gai honi buruz [sentsibilizatzea](#) izan da identifikatutako erronka nagusietako bat, baita bazterkeriaren aldeko egoerei [aurrea hartzea](#) ere.

Bestalde, dagoen [boluntariorzari jarraipena emateko](#) moduari buruz hausnartu da, baita gazteenak boluntariorzara erakartzeko moduari buruz

ere. Boluntarioa izateko epe luzerako eskakizunak eta konpromisoak jendea parte hartzera ez animatzera eramaten dute, nahiz eta uste duten laguntza puntuala behar izanez gero, guztiak daudela horretarako prest. Hala ikusi da, adibidez, konfinamenduan, 45 boluntarioko sare bat sortu baita, pertsona ahulenei laguntzeko prest.

5. BESTE ERAGILE BATZUEKIN SAREAK EHUNTzea

Gizarteratzearen inguruko erronka nagusiak identifikatu ondoren, komenigarria litzateke herriko beste eragile edo pertsona batzuekin lankidetzak egitea.

Eragileen mapaketa baliagarria izango zaigu udalerrian nork zer egiten duen jakiteko; horregatik, garrantzitsua da eragileekin harremanetan jartzea, elkarlanean nola jardun eta nola lan egin daitekeen modu kolektiboan ikusteko.

Interesgarria litzateke eragile, elkarte edo pertsona bakoitzarekin beren erakundetik bertatik zer egin dezaketean hausnartzea eta zer ekarpen egin dezaketean udalerrin inklusibo baten eraikuntzan. Baliteke lan horretatik hainbat eragilek batera egin ditzaketean ekimenak edo jarduerak ateratzea, edo landu beharreko indargune edo erronka gehiago identifikatzea.

Lan honek, lankidetzak ezartzeaz gain, lehen proposatutako sentsibilizazio-lan garrantzitsu hori ere ahalbidetuko du.

6. ZER EGIN DEZAKEGU UDALERRI GISA? JAR DITZAGUN ADIBIDE BATZUK

Hona hemen Antzuolan identifikatu diren programa edo ekimenen adibide batzuk:

Sentsibilizaziora eta prebentziora bideratutako ekintzak

Askotan alde batera uzten den lana, eta honek ez du esan nahi garrantzitsua ez denik, **proiektua sozializatzea** da: garrantzitsua da herri osoak jakitea talde eragile bat badela eta zer lan egingo duen inklusioaren arloan.

Era berean, ekimena zabaltzeko orduan, atea zabalik utz dezakegu edonork parte hartu ahal izan dezan erabakitzen duen neurrian eta konpromisoarekin, pertsona bakoitzak nahi duen mailan egin diezaion ekarpena proiektuari.

Proiektua gizarteratzeak herritarrak informatuta egotea ahalbidetuko du, baina beste urrats bat eman dezakegu **sentsibilizazio-kanpaina** on baten bidez, ondo finkatutako helburu batzuekin, udalerrin inklusibo bat bultzatzeko ardura komunitatearena dela sustatuz.

Sentsibilizazio-kanpaina honek kontuan hartu beharko ditu belaunaldi desberdinen komunikatzeko moduak, teknologia berriak baliatu ditzan, baina baliabide tradizionalenak eta komunitatean erabili ohi direnak txertatuz.

Baina ez gara hutsetik hasten, gure inguruan pertsona asko ari dira bolun-

tario-lanetan, bai modu formalagoan elkarte baten bidez, bai informalki laguntza emanez.

Ekintza boluntario horiek ikusaraztea herritarrek kontzientziatzeko beste modu bat izan daiteke, eta, gainera, balioa eman diezaieke beste batzuekin batera beren ingurunean ongizatea sortzen ari diren pertsona horiei.

Komunitatea inplikatzeko ekintzak

Pertsona guztiok gure herriaren, auzoaren edo ingurunearen parte sentitzea, erantzukizuna hauen parte garen guztiona da, eta, beraz, beharrezkoa da komunitate osoa inplikatzeko, begirada hori integratu dezan. Hurrengo ekintzek ikuspegi hori dute, erantzukizuna guztion artean partekatzen baita:

Auzo bakoitzean pertsona bat izatea bere auzoaren eta auzoa osatzen duten pertsonen kezka, behar eta aukeren ordezkari eta "antena" gisa.

Pertsona bakoitza **"radar edo antena"** izan gaitezke, begirada honetatik gure inguruan gertatzen denari adi egoteko. Horrek gure bizilagunak gehiago ezagutzen lagunduko du, eta, horrela, kalteberatasun- edo bazterketa-egoerak detektatzen.

Pertsona bati **zerbait gertatzen zaiola detektatzeko zer alderdiri erreparatu** beharko geniokeen jakiteko dekalogo batek antena edo radar izateko lana erraztu dezake.

Herriak **harrera-protokolo** bat izan beharko luke, bertako hainbat pertsonak eta eragilek parte hartuko luketena eta bertara bizitzera datozen pertsonen denboran zehar lagunduko diona.

Belaunaldien arteko programek balio horiek transmititzeko existitu beharko lukete, adinari lotutako estereotipo negatiboak saihesteaz gain.

Elkarguneak sortzea, kanpotik etorritako pertsonak eta herriko pertsonak elkarrekin partekatze, haien arteko harremana sustatzeko eta loturak ezartzeko.

Udalerriko programa eta eragile komunitarioen eskaintza biltzea, horietan parte hartzeko eta dagoen eskaintza hori gizarteratzeko ikuspegitik hausnartzeko, aztertze eta berregokitzeko.

Eskaintza hori pertsona guztiei aldian-aldian helarazteak jendea parte hartzera bultzatu dezake, baina ez da nahikoa izango informazioa bidaltzea kasu gehienetan. Hori osatzeko, boluntarioak **"Komunitate-erraztaile"** gisa jardun baitezakete, pertsonen ekintza horietan parte hartzen lagunduz, beren interesen arabera.





5. PROFESIONALEN LAGUNTZA

Inklusioa nahi dugun gizartearen egitura definitzen duen gai gisa definitu behar da, eta erantzukizun partekatutik eta elkartasunetik baino ezin zaio aurre egin.

Horregatik, proiektu honen oinarria herritarren partaidetza soziala bultzatzeko erantzukizuna pertsona guztiena dela da, eta gizarteak berak erantzukide izan behar duela.

Gai hau zeharkakoa da, eta adinaren, generoaren, maila sozioekonomikoaren eta hezkuntzaren baldintzak gainditu egin behar ditu.

Inguruneak, komunitateak eta administrazio publikoak funtsezko zeregina dute inklusioa bultzatzeko. Zeharkako ikuspegi integratu batetik lan egitea da helburua, udala eta esparru pribatu eta sozial komunitarioa tartean sartuz. Erantzun integratua eskainiz, udal-baliabideetatik eta komunitatearen berraren baliabideetatik.

Horregatik, talde eragileak udalerriko Gizarte Zerbitzuekin eta Osasun Zerbitzuekin koordinatuta lan egin behar du, pieza guztiak funtsezkoak diren engranaje bat da. Ekimen hau abian jartzeak eta talde sustatzailearen lanak gizarte-zerbitzuek eta osasun-zerbitzuek egiten duten lanari laguntzea ekar dezake.

...Pertsonen bizitza hobetzeko inplikatzeari gure esku dago...

6. COVID-19 GARAIETAKO INKLUSIOARI BURUZKO GOGOETAK

Pandemiaren etorrerak premia eta erronka berriak ekarri ditu, eta erronka hauei beste ikuspegi batetik heldu behar zaie, gauzak egiteko beste modu batetik eta erakundeetatik haratago joanez. Komunitateak garrantzi berezia hartu du covid garaian, eta berekin dakar herritar gisa berrantolatze beharra.

Ezin dugu ahaztu krisi honen ondorioz, askotan, baztertuta geratzeko arriskuan zeuden pertsonak zuzenean baztertuta egon direla. Lanpostuak galtzeak, gizarte- eta osasun-baliabideetan aurrez aurreko arreta murrizteak, elkartzeko ohiko lekuak desagertzeak, beldurrak berak eta abarrek pertsona askok gizartearekin lotuta mantentzen zituen sare hori galtzea eragin dute.

Horregatik guztiagatik, "Herritartasun aktiboa" kontzeptuak garrantzi handiagoa hartzen du garai hauetan, eta elkarrekiko laguntza eta konpromiso soziala ezinbestekoak dira komunitate bereko kide garen pertsonen ongizatea bermatzeko.

Errealitatea aldatu egin da, eta aurreko garaietan abian jarritako programak birplanteatu behar dira, egoera berrira egokitzeko; izan ere, pertsona ahulenen edo behar gehiago dituztenen beldurra handiagoa da, eta, kasu askotan, udalerriko gizarte-bizitzan parte hartzea eragozten du.

Egoera horri alde on bat aurkitu badiezaiokegu, zalantzarik gabe, udalerrigehienetan martxan jarri diren boluntarioen sareak sortzea da. Pertsona guztiei eragin digun egoera denez, premia handiena izan duten pertsonei laguntzeko motibazio hori piztu zaigu gutako bakoitzari eta, ondorioz, komunitateko kide izatearen sentimendua areagotu egin da.

Azken batean, komunitateari bere balioa eman behar zaio gizarte eraldatzeko eragile gisa gizarte inklusiboago bat eraikitzeko.



INKLUSI



Gizarteak
Ezazu Aldeak
Ezazuak Ezazu
Ezazuak



ETORAZUNA
ERAIKIZ
El futuro de Gipuzkoa

MATIA
INSTITUTO

 **ADINKIDE**
GRANDES AMIGOS